

Borborraldia

**Maiden IANTZI
GOIENETXE**

Azken egunetan bi hitzaldi toka-
tu zaizkit herri euskaldunetan
erdaraz. Bietan zekiten ia par-
taide guztiek euskaraz. Batean
hizlariak galdetu zuen ia baten batek ez
zuen ulertzen eta pertsona bakarrak al-
txatu zuen eskua, errateko kostatzen zi-
tzaiola baina ahaleginduko zela. Elebi-
tan ekin zion, baina gaztelania gailendu
zen agudo. Erraztasun handiagoa zuela
aitortu zuen. Bigarren hitzaldian agu-
rrak eta eskerrak bakarrik aditu nituen
euskaraz. Bukatzean luntxa egon zen,
eta euskaraz solastatu nintzen denekin,
nahiz eta baten batekin tiraka izan; ba-
ta, euskararen aldera eta bertzea, erda-
rarenera.

Etorri berriengan jartzen da batzue-
tan fokua, euskara ikasten ez dutela
eta. Baina ez dute deus ezberdinik egi-
ten aurkitzen dutenera egokitzea bai-
zik. Emantzat ditugun gauza batzuk ez
dira halakoak. Berriki, gazteen mahai-
inguru batean, nagusiki gaztelaniaz bi-
zi den beasaingar euskaldun bat (fami-
lia euskaldunekoa, D ereduakoa) eta
euskaraz bizi den tuterar bat elkartu zi-
ren. Tuterakoak kontatu zuenez, gerta-
tu izan zaio herrikideek bertakoa denik
ez sinestea. Baina bertakoa da, baita
gurasoak ere.

Bertze pasarte bat: bazkari batean,
herri euskaldun batean, ondoko
mahaikoak gaztelaniaz ari zirela-eta

«zer itsuski egiten duen» aipatu zuen
lagun batek. Pentsatu nuen zenbatetan
egiten duen berak gauza bera. Sarri
irensten dut «egin euskaraz» errateko
gogo, ez dudalako uste bidea hori de-
nik. Etxeko ttikiari bakarrik erraten
diot, jakinda ez dela justua, bera ere
dagoenera egokitzen baita, etorri berri
gisa. Euskara ez da inoiz inportante-
ena... falta dugun arte. Horregatik, gu-
txien dutenek izaten dute kontzientzia
handiena eta herri euskaldunetan gu-
txituak garela ahanzten zaigu. Gure es-
kualdean, Bortzirietan, euskararen
udaberria piztu nahi izan du Borborral-
diak. Gaur bukatuko da ekimena Beran
besta batekin. Etorri! •

Egarriak ito

**Xabier Mikel
ERREKONDO**

Bizitza ez da hain sinplea, baten
batek kontrakoa uste duen
arren. Egun ia den-dena da
konplexua, oso konplexua.

Ura. Urak sinplea dirudi bere horre-
tan merke eta eskura izan dugunon-
tzat, duela gutxira arte barra-barra
neurrigabe erabiltzen ohituta geunde-
nontzat. Baina amaitu ziren txorake-
riak, aspaldi bilakatu baitzen munduko
gutiziarik preziatuena, oinarritzkoena,
beharrezkoena... eta harrapakari trans-
nazionalen desira itsua.

Ur faltak lehortea dakar, sinplea. On-
dorioak, baina, konplexuak dira eta
konponbideak, are eta konplexuagoak.

Konponbidea borondate, neurri eta ba-
liabide guztiekin korapilatsua bada,
guztiz ezinezkoa izango da horiek ga-
be. Giza Eskubideen Aldarrikapen Uni-
bertsalean ura izateko eskubidea letra
larriz izkiriaturko dugu, urrezkoetan
nahi bada, baina lehorteari aurre egite-
ko “paper busti” antzua baino ez da
izanen, datorkigun mundu desertiza-
tuari aurre egiteko politikak zorrotz
eta temati aplikatzen ez badira.

Lurra basatiki ustiatzeko lotsarik ez
duten mundu mailako egarriak jotako
enpresa-putreak aspaldi dabiltza beste
planeta birjina baten ehizan; akabatu
arte estutuko luketen planeta berria?

Ilargia, Marte...? Konkista plan horiek
ez naute batere erakartzen, baina hala
ere, aukera baliaturako nuke gustura za-
borkada enpresaburu bidaltzeko, ho-
rien poltsikoetan soilik joaneko txarte-
la sartuta.

Kito, iritsi gara atarira, Uraren Guda-
ren atarira, entzuten dira danbor ho-
tsak. Guda krudela izanen da, eta gera-
tzeko etorriko da, suak itzaltzeko ez
da-eta urik izango.

Bada, hemen bertan, etxean, Arabar
Errioxako mahastiak egarri daude.
Martxa honetan ez dugu izanen ardo-
rik egarria asetzeko.

...egarriak ito, prest gaude? •